

AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUZT • ZUMAIA ■ KIROL ALDIZKARIA

sasoiari

2017ko maiatza

24. zenbakia

ZARAUZKO XXV TRIATLOIA
Proba gifzindariaren urteurrena • 10

TXIRRINDULARI GAZTEAK
Zumaiarrak Gipuzkoako txapeldun • 12

MENDIAN KORRIKA
Iñigo Saenz 'Txolo' punta-puntan • 16

Gorka Eizmendi

"Lasterketa guztietan lehen hamarretan sailkatzeko moduko autoa dugu" • 4



Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

AZALA: Urola Kostako Hitza.

Sasoian 2.0: Urola Kostako Hitza.

Beroketa ariketak: Urola Kostako Hitza.

Berriketa: Urola Kostako Hitza eta

Gorka Eizmendi.

Kronika: Juan Mari Gibelalde.

Kirolari gazte: Zumaiako Txirrindulari

Elkartea, ZKEko squash atala, Bitor

Mutiozabal eta Urola Kostako Hitza.

Hariari tiraka: Urola Kostako Hitza.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Ane Azkue

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Orvy EM

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako**

Udal Elkarteak argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarauz eta Zumaiako kirol albisteak

jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaiako kirol albisteak, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.

UROLA KOSTAKO



UDAL ELKARTEA

SASOIAN 2.0

Arraun denboraldiak freskatuko du uda sasoia



Ekaina gainean da, baita uda sasoia ere. Eguraldia berotzen hastearekin batera, arraun denboraldia abian jartzen da. Urola Kosta itsasaldeko eskualdea da, itsasoarekin harreman zuzena duena, eta traineruzale amorratua, gainera. Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio dira herri ordezkariak. Gorria, marroia, urdina eta horia haien koloreak. Gizezkoetan eta emakumezkoetan. San Miguel Ligan, Eusko Tren Ligan, KAE ligako lehen eta bigarren multzoetan, Gipuzkoako Txapelketan, Euskal Herrikoan... eta, nola ez, Kontxako Bandera preziatuan. Hamaika talde eta hamaika estropada. *Sasoian.info*-k ahalegin berezia egin nahi du, eta traineru denboraldira begira, atal berezia sortuko du webgunean. Bertatik, Zumaia, Getaria,

Zarauz eta Orioko arraun taldeen albisteak emango ditugu eta, horrez gain, hainbat azpiatal izango ditu: arraun taldeak, traineru bakoitzeko arraunlarien fitxa, denboraldiko egutegia, estropaden sailkapena eta sailkapen orokorra, besteak beste. Arraun kontuez gain, aldi-aldian, elkarrizketak egin eta argitaratuko ditugu. Elkarrizketetan hamar galdera labur egingo zaizkio kirolariari, eta irakurleek nor elkarrizketatuko luketen eta zer galdetuko lioketen proposatu ahal izango dute, *sasoian@sasoian.info* posta elektronikora idatzita. Bestalde, urte osoko egutegia kontsultatzeko aukera izango dute erabiltzaileek aurki. Uda bero dator, freskatu zaitetz *Sasoian.info*-n!

ZOZKETA

LAGUN ARO
SASKIBALOI
TALDEAREN ESKUTIK

BALOA ETA BUFANDA



Zein kirolari nahi duzu elkarrizketatzea hurrengo zenbakietan edo Sasoian.info webgunean?

Bidali zure proposamena *sasoian@sasoian.info* helbidera eta parte-hartzaile guztien artean zozketa eginda erabakiko da irabazlea

Elurretatik lehorrera, makuluekin



ZER DA?

Ibilaldi nordikoak trekkingak baino erritmo jarraiagoa du. Diferentzia handiena makuluak erabiltzeko teknikan dago: ibilaldi nordikoan makuluek 50-65 graduko anguloa hartzen dute; trekkingean, aldiz, 90 gradu inguru hartzen dute. Makuluak ere ezberdinak dira batean zein bestean: ibilaldi nordikokoak atzerantz bultzatzeko diseinatuta daude, eskua eta hatzak irekita, eskularru moduko batez lagunduta. Trekkingeko makuluek, aitzitik, egokortze funtzioa dute: bere gainean jarrita, indarra beherantz egiten da, eskuak beti itxita.

MARTXA NORDIKOA edo *nordic walking-a* makulu espezifikoko batzuekin egiten den ibilaldi mota da. Trekkingaren antzekoa da, baina berezitasun jakin batzuk ditu. Ariketa fisikoa modu erraz eta dibertigarrian egiteko aukera eskaintzen du, bizimodu osasuntsu baten mesederako, eta erresistentzia lantzeko gomendagarria da. Modalitate honek joan den mendearen 30eko hamarkadan du jatorria, eta iraupen luzeko eskiatzaileek praktikatzan zuten entrenamendu saioetan, egoera fisikoa hobetzeko eta denboraldi hasierari intentsitate handiagoz ekiteko. Ondoren, 80eko hamarkadan, *pole walking* izenez eman zen ezagutzera AEBetan, xendazaletasun klasikoaren aldaera eraginkorragoa bezala, baina ez zen erabat finkatu. 1996-an, ibilaldi nordikoen onurak aztertzen hasi ziren Finlandian eta, urtebete geroago, Exel fabrikatzaileak karbonozuntzez ekoiztutako makulu presatuagoak merkaturatu zituen; ordu arte, eskiatzaileen makuluak erabiltzen zituzten. Harrezkero, modalitatea nazioartean hedatu zen, eta gaur egun 40 herrialdeetan baino gehiagotan lantzen dute –modu ludikoan nahiz lehiakorrean. Maiatzaren erdialdean, esaterako, Nordic Walking Series txapelketako jardunaldiak jokatzekoak ziren Zarauzko hondartzan; baina, azkenean, bertan behera utzi zuten babesle faltagatik.

ONURAK

- Korrika egitean edo martxa klasikoan baino gihar multzo gehiago erabiltzen da ibilaldi nordikoan; hau da, abdominalak, besoak, bularreko muskulua, bizkarra eta lepoa.
- Gaitasun kardiobaskularra eta oxigenazioa hobetzen ditu.
- Martxa klasikoan baino energia eta kaloria gehiago kontsumitzen da.
- Orkatiletako, belauetako eta aldakako artikulazioen presioa murrizten du.
- Lepoko eta bizkarrezurreko mugikortasuna hobetzen du. Era berean, bizkarra eta besoak sendotzen ditu.
- Makuluak azalera labainkorretan ibiltzeko aproposak dira, egonkortasuna bermatzen baitute.
- Osteoporosia prebenitzen laguntzen du. Makulua zoruaren gainean jartzekoan sortzen den bibrazioa guztiz mesedegarria da hezurak sendotzeko, eta artikulazioei kalterik ez die eragiten.

MATERIALA

- Karbonozkoak, karbonoaren eta beira zuntzaren nahasketa bidezkoak edo aluminiozkoak izan daitezke. Karbonozkoak indargetze edo amortiguazio hobea bermatzen du.
- Kolpea xurgatzen duen gomazko takoa darama puntan; tako hau aldatu egin daiteke.
- Makuluen luzera norbere altura 0,66/0,68 edo 0,7 zenbakiekin biderkatuz lortzen da. Makuluak oso luzeak badira, mugimenduaren garapen zuzena oztopatzen dute.
- Kirten berezia izaten dute, uhal eta guzti, eskutik makulura egindako indarraren transferentzia egokia izan dadin.
- **Erabilera:** oinkada eta makuluekin egindako laguntza koordinatuz praktikatzan da; hau da, ezker zangoarekin oinkada egitearekin batera eskuin eskuko makulua jartzen da lurrian, eta alderantziz.

Gorka Eizmendi

Auto-gidaria

«Egunen batean danbada eman eta podiumera igotzea da gure asmoa»

Auto-gidari aiarrak hiru urte daramatza Euskal Herriko rallyetan eta rallysprintetan lehiatzen; maiatzaren 25ean etxean jokatu du, Aiako IV. Igoeran, hain zuzen ere.



Euskal zirkuituko rally eta rallysprint ligako ohiko auto-gidaria da Gorka Eizmendi (Aia, 1987). 2008an egin zuen debuta, etxean bertan, Aian antolatu zuten estreinako igoeran eta, harrezkero, ez dio lasterketak korritzeari laga. Betiere, arazo mekanikoek utzi dioten neurrian. Izan ere, ez du zorte handirik izan autoekin, eta orain arte ezin izan du urte osoa biribildu. Aurten denboraldia osatu nahi du eta, azaroa bitartean, hamar rallysprint eta laupabost rally proba jokatu nahi ditu. Aiarrak Formula Libre kategorian lehiatzen ari da, Haritz Olasagasti *Errorta* kopilotua lagun duela. «Beste kategorietan sartzen ez garen gida-

riontzat sortu dute modalitate hau; tartean, Txus Jaiok bezalako gidari ezagunak daude. Modalitate honek autoari nahi adina modifikazio egiteko aukera ematen digu; modu merkeago batean motorrari ahalik eta zaldi gehien atera diezaiokegu. Errespetatu beharreko baldintza bakarra dugu: autoek 2.000 zentimetro kuboko turboa izan behar dute. Hortik aurrera, nahi den guztia alda diezaiokegu autoari», adierazi du Eizmendik.

Duela hiru urte ekin zenion rallyak korritzeari. Zein da orain arteko balorazioa?

Hasiara ez zen oso ona izan. 2008an hasi ginen korritzen, BMW

batekin. Lasterketa gutxi batzuk egin ondoren oso eroso sentitu ginen, eta autoa aldatzea erabaki genuen. Gaur egun dugunaren antzeko bat erosi genuen, Subaru bat. Zoritxarrez, auto berria eskuratu eta astebetara kolpea hartu eta su hartu zigun. Hasierako bi urteak nahikoa katas-trofitikoak izan ziren eta, egia esan, diru dezente gastatu genuen apenas lehiatzeko. Orain dugun autoak bi urte bakarrik ditu, baina lasterketa gutxi batzuk baino ez ditugu jokatu berarekin, arazoz arazo ibili baikara. Gure ustez, orain hasi gara hasieratik gauzak behar diren bezala egiten. Lasterketetan hasi ginenean, aurrekontu gutxirekin auto on bat muntatu eta aurrealdean sailkatzen saiatu

«Ikasteko modu onena izan ez arren, orain arte pasatu zaigunak eskarmentu gisara merezi izan digu»»

ginen, baina argi geratu zaigu baldintza horietan ezin dela emaitza onik lortu.

Beraz, aurtengo urtea al da benetan serio ekin diozuena?

Beti ekin diogu serio denboraldiei, baina aurten benetan prestatuta gaudela esango nuke. Aurreko urteetan baino prestatuago, behintzat, bai. Orain arte pasatu zaigunak eskarmentu bezala merezi izan digu. Ez da ikasteko modurik onena ere, azkene-rako diru asko gastatu dugulako. Nolanahi ere, ikasi beharrekoa ikasi dugu, eta auto fidagarri bezain azkar batekin lehiatzen ari gara orain.

Esperientzia xumea duzuen arren, zuen tokia egitea al da aurtengo helburua?

Bai, hori da. Hala ere, lasterketak irabaztea ezinezkotzat jotzen dugu. Puntualki, lasterketa batean edo bestean, aurrealdean koka gaitzeko, baina lasterketa buruan ibiltzen direnek arazoak izan dituztelako izango da hori. Oro har, rallyetako gehienok lagunartean egindako autoekin lehiatzen dugu. Ez gara mekanikoak, ezta autoa muntatzen profesionalak ere, eta aurrekontu handiagoa duten gidarien aurka neurtzen ditugu indarrak. Izan ere, Munduko Txapelketetan erabiltzen dituzten autoak ikusten ditugu lasterketetan; adibidez, Ander Vilariñok egun erabiltzen duen autoarekin Peter Solbergek 2004an munduko txapela lortu zuen, eta Joseba Zapiainek erabiltzen duena, berriaz, Marcus Gronholmek erabiltzen duen bera da.

GORKA EIZMENDI

Aia, 1987



« Ikaragarriko aldea dago auto batetik bestera. Azken finean, antzik gehiena kanpotik dute! »

Azken horien kontra ez dugu ezer egi-terik! Baina, horiek kale egin dutenean hor baldin bagaude, egunen batean danbada eman eta podiumera igotzea da gure asmoa. Irabaztea, aitzitik, oso zaila da.

Txus Jaio, Joseba Zapiain edota Vilariñotarrak jaun eta jabe diren lasterketetan distira egin ahal izatea ametsa al litzateke?

Ez da ametsa. Adibidez, Txus Jaio gure kategoria berean ari da lehian; Formula Libreko modalitatean, hain zuzen ere. Bera oso auto-gidari ona da, Espainiako Txapeldun izan baita birritan. Pertsonalki ezagutzeko aukera izan dut, eta pertsona bezala oraindik hobe da. Niretzat plazera da bere aurka lehiatzea. Pike jatorra dugu elka-

rren artean. Gidari entzutetsu batekin lehian ari baldin banaiz ere, gainerako guztiok bezalakoxea dela erakusten du. Askotan motibatuazten zaitu, zirikatuz eta xaxatuz. Egia esan, ohore bat izango litzateke bere mailara iristea.

Danbada eman eta ahal bada podiumera igotzea gustatuko litzazukela adierazi duzu. Horretarako aukerarik ikusten al duzu?

Autoa baldintza egokietan badago eta, era berean, gidatu beharko nukeen bezala gidatuko banu, lasterketa guztietan lehen hamar postuetan sailkatu beharko genuke. Helburu hori lortzeko moduko autoa badugu, behintzat. Hala eta guztiz ere, hainbat eragile dago: zein gidarik korritzen duen; lasterketako baldintzak zeintzuk diren eta horren arabera zenbat arriskatu dezakegun; autoa prest dagoen... Proba batean edo bestean lehen bost postuetan bukatzea posible ikusten dugu aurten; podiumera igotzea, ordea, nekeza. Hala ere, ez dugu baztertzeko. Izan ere, aurrekoek ere matxurak izan ditzateke, edo erretratu egin daitezke. Kasu horietan, aurrean baldin bagaude, gerra emateko prest, aukerak izan ditzakegu.

Lehen postuetan dabilzan gidariek punta-puntako autoak di-

SUBARUA puntu-puntu jarri dute Eizmendik eta haren lagunek, arazorik gabe lehiazteko.

tuzte. Hala eta guztiz ere, auto batetik bestera horrenbesteko alde al dago?

Ezin da imajinatu ere egin! Alde ikaragarria dago batetik bestera. Antza gehiena kanpotik dute! Rallyko go-rengo mailatik datoz lehen postuetan sailkatzen diren gidarien auto horiek guztiak. Automobilismoan aplikatzen duten azken teknologia eta ingenieria nahiz dirutza guztiak nonbaiten agertu behar du, eta hori auto batek beste-ari kilometro bakoitzeko ateratzen dion segundoko aldean islatzen da. Punta-puntako autoek hori dute.

Edonola ere, autoek ez dute miraririk egingo, gidaria bera ausarta ez bada.

Jakina, garbi dago autoa eramaten jakin egin behar dela. Nik inori ez diot meriturik kendu nahi, nahikoa balore iruditzen zait aukian eseri eta irteera batean jartzea, horrek sortzen duen tentsio guztiarekin. Askotan, jendez gainezka dagoen bihurtune batera iristen zara eta horrek sekulako zirrara eragiten dizu. Jada, ez da gidatzea bakarrik... Balio erantsi bat du! Horrenbeste jende begira, badi-rudi norbait nota jartzen ari zaizula. Presio handia da benetan, eta inori ez diot meriturik kentzen, baina askok duten aurrekontuarekin erraztasun

handiagoa dutela uste dut. Nik ere diru hori izango banu, gauza bera egingo nuke. Auto hobea baduzu, gehiago gozaten duzu. Azken finean, erosoago nahiz seguruago zoaz eta, laburbilduz, azkarrago.

Gidari ona izatea baino funtsekoagoa iruditzen al zaizu primerako autoa edukitzea?

Dezente gehiago, bai. Gidari asko ezagutzen dut gu baino auto eskasagoa dutenak, eta askotan harrিতuta geratzen naiz zeinen azkar ibiltzen diren. Gidariak autoari duen guztia atera diezairoke, baina autoak gehiago eman ezin badezake, akabo. Ez dagoen tokitik ezin izango dio gehiago atera. Aitzitik, gidatzen horren ona izan gabe ere, autoa bere %70-80an eramateko gai bazara, ez da horrenbeste arriskatu behar gu baino azkarrago joateko. Horren gidari ona ez bada ere, autoa erritmo polit batean gidatuz gero, abiadura bizkor samarrik lor daitezke. Dena dela, horrekin ez dut esan nahi zirkuituko gidariak txarrak direnik.

Ausardia, konfiantza eta eskarmentua ibilian lortzen dira; baina bihurtunean zartakoak hartuz eta autoa irauliz ere?

Ez, kilometroak eginez jasotzen da eskarmentua. Zartakorik hartu gabe zenbat eta kilometro gehiago egin, orduan eta konfiantza gehiago hartzen duzu. Dena dela, zartakoak hartzea ona izaten da azkar ikasteko. Gisa horretan berehala ikasten da, eta ikasten ez duenak berak atera behar ko ditu kontuak. Hobe da kilometroak eginez gogortzea; kolpeak hartuz konfiantza galdu besterik ez duzu egingo. Gainera, zartakoa hartzen duzun bakoitzean berriro segurtasuna bilatu behar ko bazenu bezala aritzen zara. Hobe da pausoz pauso joatea, erritmoa gutxinaka igotzen eta horrela konfiantza hartzen. Bestela, guri gertatu zitzaiguna gerta dakiokio edonori, zartako eder bat hartu eta berehala ikasi behar!

Auto horiekin ezin duzue errepide normala zapaldu. Beraz, nola prestatzen dituzue probak? Nola moldatzen zarete denboraldiak

Automobilismoa

Hastapen gorabeheratsua, baina norabide egokian



«Txiki-txikitatit erakarri nau autoen munduak. Ez pilotak, ezta futbolak ere. Niri autoak gustatzen zitzaizkidan, eta 18 urte bete zain nengoen bolante aurrean jartzeko. Adinez nagusi egindakoan Mercedes zahar bat erosi genuen eta Miranda de Ebroko zirkuitura joaten hasi ginen praktikatzera aste-buruetan. Autoarekin lasterketan, gure saltsan, ondo pasatzeaz gain, gozatu egiten genuela ikusi genuen. Gainera, nahikoa ongi gidatzen genuela konturatu ginen, baita jendeak arretaz begiratzen gintuela ere. Baina, iritsi zen auto zahar hura puskatu zen eguna. Arre edo so egin behar zela-eta, BMW bat jarri zidaten prezio onean eta berotualdiarekin momentuan erosi genuen. Ondoren, lagunartean muntatu genuen eta halaxe ekin genion rallyei. Harekin lau lasterketa jokatu nituen, eta Asturiasen saldu genuen».

«Ondoren, Subaru urdina egin genuen jauzi, auto serioago batera.

Erosi aurretik, lasterketa bat korritzeko utzi zidaten. Sekula erabili gabe eta lasterketako gurgilekin –BMWarekin errepidekoak erabiltzen nituen–, seigarren egin genuen arrisku handirik hartu gabe. Ondorioz, ez genuen zalantzarik izan. Zoritxarrez, ordea, hurrengo lasterketan oso konfiantuta irten eta istripu txiki bat izan genuen. Erraz konpontzeko moduko kolpea zen, baina egiten zuen beroagatik-edo autoa pixkanaka-pixkanaka su hartzen joan zen eta hantxe geratu zen. Denboraldi hartan, Aiako Igoera egiteko hori koloreko BMW bat utzi zidaten, eta denboraldi hura horrelaxe joan zen. Geneukan aurrekontua baino gehiago Subaru erosten erabili genuen».

«Iaz, orain erabiltzen dudana Subaru erosi genuen, eta diru gutxirekin gauza asko egin nahi izan genuen, hala moduz muntatuta. Hala ere, arazo asko izan genituen eta hirugarren lasterketarako motorra hautsi egin zitzaigun. Iazko aurrekontua ere konponketak egiten eta motor berria erosten joan zitzaigun, azkenean. Aurten, beraz, motor berriarekin ari gara. Autoa bera ere goitik behera berraztertuta dago, eta ustez prestatuta gaude».

irauten duen bitartean entrenamenduak egiteko?

Lasterketa bat jokatzeko den bakoitzean, egun jakin batzuk izaten ditugu zehaztutako zirkuitua ezagutzeko. Haritz Olasagasti *Errota* koplota koaderno eta bolaluma hartzen ditu, eta ibilbidea goitik behera osatzen dugu, zirkulazioko arau guztiak errespetatuz; izan ere, ertzainak hurbil izaten dira guztia kontrolatzen. Kaleko autoarekin korritzen dugu entrenamenduetan, eta zirkuituko atalak pasatu ahala, Haritzi azaltzen dizkiot bakoitzak dituen ezaugarriak. Gidari eta koplota bakoitzak bere oharrak hartzen ditu. Jarraian, beste bizpahiru aldiz osatzen dugu probako ibilbidea, hartutako apunteak erreparatzeko. Eta, hurrengo egunean, lasterketera.

Motorra, gurpilak, gasoila... Babeslerik gabe, benetan zaila bezain garestia izango da bada automobilismoan aritzea, ezta? Zuek nola moldatzen zarete?

Ez da posible. Niri, behintzat, ezinezkoa zait babeslerik gabe automobilismoan aritzea. Norberak jartzen ditu urteko helburuak, eta guk lehen hamarretan sailkatzeko asmoz ekin diogu denboraldiari. Horretarako gurpil onak eta autoa baldintza egokian behar dira, eta horrek eragin ekonomiko nabarmena du, zalantzarik gabe. Langile naizen aldetik, laguntzailerik gabe ezinezkoa litzaidake. Aurten, esaterako, Teilatugain eta Saizar sagardotegia ditugu babesle garrantzitsu gisa, baita laguntzaile dezente ere. Baina inoiz ez da nahikoa. Diru gehiagoarekin lehiakorragoak izan gaitzake eta, alde horretatik, ez dago mugarik.

Mekaniko lanak zuen artean eginez gero, gaitzerdi!

Hori da. Gu hementxe moldatzen gara (Orioko Botalekun), gure artean, beti ere. Aurten zorte handia izan dugu, eta mekaniko ona izango dugu gure esanetara; egunero autoan lan egiteko ez, baina bai zerbait serioa denean kasu egiteko. Tomas Lopez da bera, eta Subaruarekin urte askoan ari da lanean. Bada, hitzarmena itxi dugu harekin, lasterketa guztietan izan



dadin. Gidari askok erabiltzen ditu mekanikoak lasterketetan eta, alde horretatik, ez dugu gabeziarik izango. Konfiatza handia dugu berarengan, autoaren motor berria berak muntatu baitigu. Profesional handia da. Gainerakoan, lagunaren artean egiten ditugu mekanika lanak.

Beraz, ez da lasterketa bakarrik. Autoa prest jartzen ere denbora luzea ematen duzue.

Bai. Ordu asko ematen ditugu guztia puntu-puntu jartzen. Beti dago zer egina. Proba bakoitzaren ondoren, goitik behera garbitzen dugu autoa, azpiak asko zikintzen baitira. Era berean, lasaierak eta koipeztaketak gainbegiratzen ditugu. Neurri batean, autoa maitasun handiz tratatzea eta zaintzea da kontua.

Maiatzaren 28an Aiako IV. Igo-

era jokatu da. Etxeko proban betiere erantzukizun gehiago izate al duzu?

Ilusio gehiago egiten dizu. Azken finean, norberak exijitzen dio gehien bere buruari. Besteek esandakoa aparte uzten dut. Lasterketa bakoitzean nire helburuak betetzen baldin baditut, gustura izaten naiz. Etxeko lasterketako helburua aurrealdean sailkatzzea litzateke, eta ikuskizun pixka bat emango bagenu, hobe; jendea gustura uzteko eta guri ere gidatzeko modu hori gustatzen zaigulako. Presioa baino gehiago ilusioa sentitzen dut ezagunen aurrean korritzerakoan. Azkenean, begira ari direnak animatzen eta babesten ari zaizkizu.

Aurtengoa, Aiako laugarren goera izango da. Eskualdean zaletasuna sustatzeko proba hau baliagarria dela uste al duzu?



«**Presioa baino gehiago ilusioa da ezagunen aurrean korritzerakoan sentitzen duzuna. Begira ari direnak babesten ari zaizkizu**»

Zalantzarik gabe. Ikusi besterik ez dago zenbat jende joaten den ikustera. Lasterketa hasi baino bi ordu lehena-go jendea iristen hasten da. Inguruko alkateak gora igoko balira eta kirol honek nolako jendetza mugitzen duen ikusiko balute, auto lasterketa gehiago antolatuko lituzkete inguruan. Ni neu ere harrিতuta geratzen naiz ikusita zenbat jende biltzen den bide bazterretan proba ikusteko gogoz. Euskal Herrian sekulako zale-tasuna dago; beharbada, hemen ez horrenbeste. Azpeitia aldean sekulako grina dute! Gu bioi ere harrera ikaragarria egiten digute, etxean baino hobeto, eta horrek guztiak asko betetzen zaitu. Hemen hasiberri samarra da; izan ere, Urola bailaran urtean hainbat lasterketa egiten dute. Zorionez, Oriotik gazte jendea mugitzen hasi da pixkanaka. Azkenean, egun pasa polita egiteko aukera ederra da.

Aiako I. Igoeran egin zenuen debuta, 2008an. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Estresagarria izan zen. Igande goizean korritu behar genuen, eta larunbat arratsaldean ikuskatzaileek autoa egiaztatu behar ziguten. Zarauzko tailer batean muntatu genuen autoa eta, garabira igotzeko momentuan, motorra soinu arraroak ateratzen hasi zen. Bi balbula hautsi zituen, besteak beste. Une hartan, mundua gainera erori zitzaidan. Autoa igande goizean egiaztatzeko baimena eskatu genien antolatzaileei, eta 04:00ak arte aritu ginen autoa konpontzen. Goizeko 07:00etan kontrola pasatu zuen, eta lasterketan atera nintzen apenas lorik egin gabe. Lasterketa gaizki ez zen joan, baina tentsio handiarekin aritu nintzen denbora osoan, motorrak eutsiko ote zion kezkarekin. Edonola ere, nahikoa debut polita izan zen.

Haritz Olasagasti Errota

Kopilotua beti alboan

«Txiki-txikitatik elkarrekin cars-etan hasteko ilusioz hasi ginen», dio Haritz Olasagasti Errota aiarrak, Gorka Eizmendiren kopilotuak: «Biotako nor gidari eta nor kopilotu?»



Gorka betidanik izan da hobe, eta hasiera batetik ikusi genuen berak izan behar zuela gidaria, eta ni alboan laguntzaile gisa joanda oso gustura nabil». Elkarrekin oso ongi moldatzen direla onartu du, nahiz eta tarteka haserraldiak ere izaten dituzten. Azken finean, «estualdi une asko izaten dugu, baina oso ongi ulertzen dugu elkar». Kopilotuaren lana gidariaren esanak ahalik eta zehatzen jaso eta lasterketan horiek abes-tea da: «Horretan ere beti saiatzen gara hobetzen. Hitz gutxirekin ahalik eta gauza gehien esan behar gidariak. Ibiltzen garen abiaduretan ibilita, ikusten ez den bihurgune bat dagoela esaten badiot, esandakoari kasu egin eta aurrera». Eizmendik lagunak esandakoa berresten du: «Hori da! Berak hitz klabe batzuk esanda nik garbi eduki behar dut jarraian zer datorren eta zer nolako bihurgunea hartu behar dudan itsu-itsuan».

Aitzindaria erreferente



Zarauzko XXV. Triatloia jokatuko dute ekainaren 11n; urteurrena hizpide, probako hasierako antolatzaileek atzera begirakoa egin dute.

GETARIATIK ZARAUTZERA itsas igeriketa zeharkaldia hasieratik finkatu zuten.

ZARAUZKO HIRIAREN sorreraren 750. urteurrenaren harira, kirol ekitaldi handi bat antolatu nahi izan zuten 1987an, eta herriko kirol jardueraz arduratzen ziren hainbat lagun bildu zuten Udalak. Zarauzko Turismo bulegoaren bitartez, Oscar Gutierrez kantabriarrarekin harremanetan jarri ziren, garai hartan oraindik ezezaguna zen proba bat prestatzeko: triatloia. «Dirudienez, Gutierrezek jakin bazekien zertan zetzan, baita AEBetan horrelako probak egiten zirela ere», gogoratzen du hasieratik antolakuntzan ibili zen Juan Mari Gibelalde: «Nolabait esateko, Zarautzek triatloirako baldintza eta ezaugarri guztiak betetzen zituen; izan ere, igeriketa, txirindularitza eta korrika uztartu genitzaken herrian bertan». Horrelaxe sortu zen zilarrezko ezteiak beteko dituen Zarauzko triatloi proba.

Garai hartan, hiru kategoritan banatzen zituzten triatloi probak; A, B eta C ziren. Lehen erabakia distantzia zehaztea izan zen. Gibelalderen hitzetan, «A kategoria motzegia iruditzen zitzaigunez, B kategoriakoa egitea pentsatu genuen, baina hau gogorregia ote zen kezkatzen gintuen. Izan ere, Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia egin ondoren, inguruan dauden malda eta pendize guztiakin, txirindularitzako ibilbide luzea astakeria galanta iruditzen zitzaigun». Baina, igeriketa Getariatik Zarautzera jarri nahi zuten, beste bi saioen distantziek ere proportzionalak izan behar zuten. «Urduri samar geunden. Ez genekien nola aterako ote zen».

Bi urte geroago, Gutierrezek proba antolatzeari utzi egin zion. Triatloiarri jarraipena emate aldera, Turismo bulegoak Jexux Agoüesi eta

Juan Trekuri antolakuntzan sartzeko proposamena egin zien. «Triatloia bigarren urtean hartu genuen parte gu biok, baita Jesus Mari Arrieta *hermano* azpeitiarrak ere. Lesionatuta nengoenez, bete-betean murgildu nintzen saltsan», dio Agoüesek. Turismo bulegoak elkar-tu zituen, eta hasieran gehiago baziren ere, jendea uzten joan zen pixkanaka-pixkanaka, erantzukizun handia eskatzen zuelako. Ondorioz, Treku, Gibelalde eta Agoües geratu ziren, eta elkarrekin 20 urte pasatxo eman zituzten kirol ekitaldia antolatzen. «Askotan gu hiruroi egiten zaigu erreferentzia, baina Turismo bulegoko Ana Mari Esnal zen dena artikulatzen zuena. Udaleko langilea izan arren, lan izugarria egin zuen triatloia alde. Guztia kontrolpean izaten zuten: baimenak, harremanak, babesleak...», nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek.

«Arrotza zitzaigun»

Gaur egun ohikoa da triatloia praktikatzera, baina orduan inor gutxi aritzen zen. Proba egitea hutsa balentria ikaragarria zen, sekulakoa. «Egun gizarteak beste modu batera bizi du hau guztia. Orduan, guztiz berria zen. Horregatik, herrian bertan ere ikusmina sortu zen. Kirolza-

leak jakin-minez zeuden; izan ere, hasiera hartan gomazko trajeekin etortzen ziren triatletak, eta lagundu ere egin behar izaten zitzairen soinetik kentzen. Benetan arrotza zitzaizgun guztioi», dio Gibelalde.


Arrotza zenak gero eta oihartzun handiagoa hartu zuen, eta urtetik urtera partaidetza ere ikaragarri handitu zen. Aurten, 700 triatletak hartuko dute parte, baina estreinako urtean 45 lagun inguru izan ziren. Tartean zen Juan Luis Txiliku, proban atera zen lehen zarautzerra. «Hau guztia ahoz ahoko kontua izan da, jendea liluratuta joaten baitzen hemendik. Oso gustura gertzen ziren tratuaekin, herriko giroarekin, proba bizitzeko moduaekin...», adierazi du Gibelalde.

Agoüesek bat egiten du bere adiskidearekin; izan ere, «triatloi askotara joaten zara eta inor ez dagoen industrialde galduetara eramaten zaituzte. Zarautzen, berriz, kanal aldera luzatzen genuen korrikako ibilbidea eta eremu hura nahikoa hutsa egoten zen, baina hori Kale Nagusian jendeak sortzen duen pasilloekin orekatzen genuen. Kalea herritarrez gainezka, etengabe animatzen, oilo ipurdia jartzen zaizu!».

Herritarren inplikazioa

Hirukoak antolatzen bazuen ere, azkenean herri guztia inplikatzeko zen eta, «herritarrengatik ez balitz, ezin izango genukeen hau guztia aurrera atera». Hain justu ere, urtero urtero laguntzeko prest zegoen jendea aurkezten zen, eta egun ere hala jarraitzen du. Azken finean, jendetza behar izaten da bidegurutzetarako, anoa postuetarako, zirkuitua markatzeko, muntatzeko, igeriketa saioan ontziarekin eta piraguekin joateko... «Alde horretatik, herritarren babesa fidela izan da urtero-urtero, guztiz eskuzabala, gainera. Ordu askoko proba izanik, beharrezkoa genuen halako laguntza».

Zarauzko Triatloiak egun duen sona «herriak berari esker» lortu duela uste du Agoüesek: «Beste toki batzuetan, lehenak iritsi ondoren,



HERRITARRAK laguntzeko eta animatzeko presta izaten dira urtero.

ikusle guztiak alde egiten dute. Zarautzen, 21:00etan oraindik 40 laguneko koadrila geratzen da Musika Plazan, guztiak bukatu arte banan-banan animatzen. Horrek egiten du berezi proba hau».

Giroak ez ezik, inguruak ere asko lagundu du beti. Kostaldean jokatzen denez, Zarautzen eta inguruko herritan, zirkuitu benetan erakargarria egiten zaie parte-hartzaileei. Ibilbidea beti antzeko samarra izan bada ere, aldi-aldi aldaketak izan ditu. Adibidez, Munoa plazako hiritartze lanak zirela-eta, box eremua tokiz aldatu behar izan zuten eta, ondorioz, Getariatik Zarautzera igeri egin beharrean, beste zeharkaldi bat diseinatu zuten Zarautzen bertan, Argiñano jatetxe parean bukatuz. Korrikako saioan, bestalde, Getariara joan-etorria egin izan zuten urte askoan. Inoiz golf eremutik ere pasatu zen ibilbidea. Bizikletari dagokionez, Zakila Birari hiru itzuli ematen zitzaion hasieran, eta gero Aiako aldaparen zatia gehitu zioten; aurten, trafikoa itxi egingo dute, eta zati hori kendu egingo dute.

Lehenengo urteetakoak igande goizetan izan ziren, baina ondoren larunbat arratsaldera aldatu zuten, triatletei eurei hobeto zetorkielako. Ekainean jokatu izan da normalean,

noiz edo noiz uztailean ere bai, baina «klasika moduan», ekaineko bigarren edo hirugarren asteburua zehaztu zuten datatzat.

Hitzorduan garaian garaiko triatleta entzutetsuenek hartu izan dute parte. Hala ere, pasa direnen artean Dina Bilbao ondarroarrak utzi zuen arrastoa antolatzaileen bihotzean: «Emakumeetan onenetakoa izateaz gain, oso jatorra eta atsegina zen. Sinpatia berezia sortzen zuen herriari». Aurten, triatloiko lehen urteetako irabazle izan ziren Carlos Santamaria eta Iñaki Arenal etorriko dira 25. urteurrenekoa korritzera

Egindakoarekin harro

Antolatzaile beteranoak harro daude Zarauzko Triatloia aurrera ateratzeko egindako lanarekin, baina etapa bat bete zutela uste dute, eta jende gazteagoari utzi zioten tokia. Gaur egun, Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatzen du. «Horrenbeste urte eta gero, pixka bat nekatuta geunden, eta momentu egokian utzi genuela uste dugu. Gainera, aldaketa ezin hobeto etorri zen, ikuspegi berriekin, eta parte-hartzeari bultzada garrantzitsua emanez. Triatloiak berak ere indarra hartu du kirol bezala, eta oso ongi ikusten dugu jarraipena».

Bi gurpilen gainean nagusi!

Zumaiako Herri Eskolako txirrindulariak Gipuzkoako eskolarateko txapeldun izan dira taldeka; Tolosan jokatu zuten lasterketa, erlojuaren aurka.

ZUMAIAKO Txirrindulari Elkartea ordezkaturaz, Zumaiako Herri Eskolako alebinek Gipuzkoako Eskolarateko Txapelketa irabazi zuten taldeka. Lasterketa joan den maiatzaren 7an jokatu zuten Tolosan, eta txirrindulariek erlojuaren aurka astindu zituzten gurpilak. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, ezusteko pozgarria eman zuten zumaiarrek. Ioritz Manterolak, Ian Zanonek, Iñaki Mujikak eta Xabat Gastañaresek osatutako laukoteak Gipuzkoako talde onena dela erakutsi zuten, proba modu dotorean irabazita.

Guztira 20 taldek hartu zuten parte txapelketan. Zumaiako Herri

Eskolako gazteen lana itzela izan baldin bazen, ez zen gutxiago izan Oikiakoena. Hiru txirrindularik defendatu zuten Oikiako Herri Eskolako taldea: Ibai Etxabek, Peio Etxabek eta Eider Manzidorrek, hain zuzen ere. Oikiakoa hiru txirrindularirekin leihatu zen talde bakarra izan zen. Baldintza horietan, txalotzeko moduko erakustaldia egin zuten, eta segundo bakarragatik ez ziren podiumera igo.

Astebete geroago, Eider Manzidor alebin mailako Gipuzkoako txapeldun izan zen Seguran. Lasterketa gogorra jokatu zuen oikiarrak, eta, bere kategorian, onena dela erakutsi zuten.



DATUA

120

Negu osoa nor baino nor jardun ondoren, Zarauzko 67. Hondartzako Futbol Txapelketako festa handia ospatu zuten apirilaren 17an. Aurtengo denboraldian, eskola kiroleko ikasleak eta helduak kontuan hartuta, 120 taldek hartu du parte: senior mutiletan, 16 taldek; senior nesketan, 9 taldek; alebin mutiletan, 25 taldek; alebin nesketan, 20 taldek; eta benjamin neska-mutiletan, 50 taldek. Finala jokatzeko ohorea, aitzitik, 16 taldek baino ez zuten izan.



BA AL DAKIZU...

Zeintzuk jokatu zuten finalean?

Eskolartekoen artean, 5. eta 6. mailako alebin neska-mutilak aritu ziren jokoan. Guztira, lau partida jokatu zituzten finalean. 5. mailako mutiletan, Sallesko Mxk 4 eta 1 irabazi zion Orokieta 5 DM-ri; 5. mailako nesketan, Txapatxusak izan ziren garaile, Orioko 52-ri penaltietan irabazi ondoren (3-3); 6. mailako mutiletan, Iturzaeta gailendu zitzaion Ez Dizut Esango taldeari, 2-1eko emaitzarekin; eta 6. mailako nesketan, Aiarrak 5-6 Nk 5 eta 3 irabazi zion Orioko 62 N-ri. Helduen kategorian, Asti Pinturak (mutiletan) eta Aranola Leihoak (nesketan) taldeak izan ziren ligako txapelduinak. Kopako finalean, bien bitartean, Kirkilla Jatetxeak (mutiletan) eta Zubi Ondo Erregegiak (nesketan) lortu zuten garaipena.

Orio

Kirol aukera ezberdin eta zabala

Paddle, squash, tenis eta softbol pista berriak erabili ahal izango dituzte herritarrek Muntoko kirolgunean.



Muntoko kirolgunean

paddle, squash, tenis eta softbol pista berriak jarri dituzte. Berrikuntza horiek «gizarteratzeko eta erabilera errazteko» asmoz, maiatzaren hasieran hainbat ikastaro eta txapelketa antolatu zuten haurrentzat eta gaztetxentzat. Aurrerantzean, beraz, kirol aukera gehiago izango dute herritarrek, eta guztiak Karela kiroldegia kudeatuko

ditu. Zerbitzu horiek erabiltzeko pertsona bakoitzeko hiru euro ordaindu behar dira. Era berean, epe luzerako edo aste tartean alokatzeko aukera izango da, baina horretarako erreserbak egin beharko dira kiroldegian. Kiroldegiko bazkide ez denak sarrera ere ordaindu beharko du. Arduradunen arabera, «bazkide kopurua haztea» dute helburu.

Zarauz



Bigarren

urtez ere, squasha sustatzen

ZKEko squash sailak antolatuta, Benjamin eta Alebin II. Squash Txapelketa jokatu zuten apirilean. Bertan, 8 jokalarri benjaminetik eta 7 alebinetik hartu zuten parte, giro ezin hobean. Aurtengo irabazleak Oier Arrondo eta Aratz Oliden izan dira; lehena benjaminetan eta bigarrena, berriz, alebinetan.

HARIARI TIRAKA

Eskualdeko Arrauna

Traineru denboraldia hastear

BORDELEN ekingo diote 2011-ko San Miguel Ligari, ekainaren 18ko eta 19ko asteburuan. Aurten go denboraldian ere eskualdeko ordezkariak ariko dira lehian, baina aldaketa eta berrikuntza dezentekin. Alde batetik, hiru ordezkari izatetik bi izatera pasatuko da Urola Kosta; izan ere, Zarautzek maila galdu zuen iaz, eta aurten KAE A mailan jokatu du, Orioko bigarren taldearekin batera. Beraz, Orio eta Zumaia izango dira ordezkari TKE ligan. Batak zein besteak arraunlarien joan-etorriak izan dituzte, baina aldaketa nabarmenena entrenatzailearena izan da. Oriotarrak Iñigo Arrutiren aginduetara iri



dira lanean eta zumaiarrak, berriz, Santi Zabaletaren esanetara. Bestalde, Zumaia eta Zarautzek ez dute bigarren talderik osatu; hau da, aurtengoan harrobiko mutilekin osatu dute lehen trainerua. Emakumezkoen arraun ligari dagokionez,

oraindik ez dute erabaki nola funtzionatuko duen. Joan den urteetan bezalaxe, selekzioka jokatzeko jarraia aurkeztu dute antolatzaileek, baina Gipuzkoako arraun elkarteak ez daude horren alde. Berandu baino lehen jakingo da erabakia.



Marina Agoües Europako Futbol Txapelketan

Realeko jokalaririk Marina Agoüesek 19 urtez azpiko Europako Futbol Txapelketa jokatu du Espainiako selekzioarekin. Txapelketa Italiako Cervia herrian izango da, maiatzaren 28tik ekainaren 12ra. Txapelketa bi multzotan banatuko dute, eta Espainia B multzoan dago. Multzo indartsua da, zalantzarik gabe, Alemania, Norvegia eta Herbeheretako selekzioen aurka lehiatu beharko du.

Aia Herri Kirolak Marka berriaren bila

Aimar Irigoien harri-jasotzaile errezilarrak onartu egin du Aiako Idi Proba Elkarteak botatako bigarren erronka. Beraz, Joxe Antonio Gisasola Zelai-k 1985ean jarritako marka hobetzen ahaleginduko da datorren ekainaren 19an, Aiako probalekuan. Apustua irabazteko 123 jasoaldi baino gehiago egin beharko ditu 24 hazbeteko (56 zentimetro) eta 10 arroako (125 kilo) harriarekin. Irigoienek bost minutuko hiru txanda izango ditu lana osatzeko. Aurretik beste erronka bat jarri zioten Aiako elkartekoek Irigoieni, baina baldintza haietan marka haustea ezinezkoa ikusten zuenez, hasieran onartutako desafioa bertan behera utzi zuen. Erronka ikusgarria izateaz gain, dirutza izango da jokoan: alde bakoitzak 12.000 euro.



Kirol AGENDA



Zarauzko XXV. Triatloia

Zarauzko Triatloia 25. urteurrena ospatuko dute. Proba ekainaren 11n jokatu da; emakumezkoak 14:45ean irtengo dira, eta gizonezkoak, berriz, 15:00etan. Parte-hartzaileek Getaria-Zarauz zeharkaldia egin beharko dute igerian, 76 kilometro bizikletan eta 20 kilometro korrika. Aurten, urteurrena dela-eta, txirrindularitza saiorako errepidea trafikoa itxi egingo diote. Era berean, Hirubat triatloi dendarak **Ahaleginaren gazi-gozoek** erakusketa jarri du abian, Ramon Serrasen zuri-beltzeko hainbat argazkiz osatua.

Txirrindularitza

Zarauz-Gernika-Zarauz XVII. Zikloturista Klasika

Eguna: Maiatzak 25.

Ordua: 07:00etan.

Lekua: Kiroldegi aurretik irten eta Lege Zaharren enparantza bukatu.

Ezaugarriak: Zarauz-Gernika-Zarauz ez da martxa lehiakor bat, zikloturista proba baizik. Hala ere, Euskal Herriko eta kanpoko ehunka txirrinduzale erakartzen du urtero. Ibilbideak 170 kilometro ditu.



Mendia


Zumaia III. Flysch Trail

Eguna: Uztailak 10.

Ordua: 10:00etan.

Lekua: Irteera Erribera kaletik; ibilbidea Deba-Zumaia biotopon.

Ezaugarriak: Ibilbideak 30,5 kilometro izango ditu aurten, iaiz baino 3,5 kilometro gehiago, eta 1.370 metroko desnibelarekin. Taldekako Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute lasterketa barruan. Izen-ematea: www.kirolprobak.com.



Atletismoa

Zarauz-Aia lasterketa

Eguna: Ekainak 12.

Ordua: 11:30ean.

Lekua: Irteera Kale Nagusia eta San Frantzisko kalea elkartzen diren tokian. Helmuga, Aiako plazan.

Ezaugarriak: Zarauz Aia lasterketak 11,3 kilometro ditu, eta ibilbidea errepidez izango da. Izena www.herrikrossa.com webgunean eman daiteke, 4 eurotan; egunean bertan, berriz, 10 euro. Lehen hiru sailkatuek 200, 170 eta 150 euroko sariak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Sari berezirik ere izango da.



Igeriketa

Getaria-Zarauz Itsas Zeharkaldia

Eguna: Uztailak 24.

Ordua: 11:00etan.

Lekua: Irteera Getariako moilatik. Helmuga, Zarauzko hondartzan.

Ezaugarriak: Parte-hartzaileek Getariatik Zarauzera joan beharko dute igerian; 2,8 kilometroko itsas zeharkaldia izango da. Irteera aurreko urteetako denboraren arabera egingo dute, multzoka. Izen-ematea: www.kirolprobak.com.





ERRONKA

Tontorretako lasterkari

Mendi maratoietan buru-belarri dabil Iñigo Saenz 'Txolo' zumaiarra, garaipen dezente lortuz. Hurrengo erronka Zegama-Azkorri bost ordutik jaiste da.

BERROGEITA hamar urteen muga gainditua duen arren, bihotza gazte duela erakusten du praka motzak eta kirol oinetakoak janzten dituen bakoitzean. Abenturazalea da Iñigo Saenz Txolo korrikalari zumaiarra, eta mendiko lasterketak ditu gogoko. Maldetan gora eta behera ibiltzea gustuko izateaz gain, txukun moldatzen da. Azken urtean hainbat garaipen lortu du, 50 urtetik gorakoan kategorian. «Master 50 naizenetik, parte hartu dudana lasterketa guztiak irabazi ditut. Lavelanet (Frantzia) herriko Trail des Citadelles lasterketa izan zen lehena, eta haren ondotik Durangoko Sorginen Lasterketa, Sant Llorenç Savall Mendi Maratoia, Ponferradako Alto Sil proba eta Valentziako Mendi Maratoia etorri ziren», azaldu du.

«Gauza ez da aurkaririk ez dudala, irabazteko korrika egin behar dela baizik!», dio honek. Horren haritik, «lasterketa ari garenean ez dakigu askotan nor den gure kategoriakoa. Ez dakigu aurkaria minutu batera edo 10 minutura dugun. Beraz, nork bere lasterketa egin behar du eta kitto!». Edonola ere, korrikalari zumaiarrak garrantzia handiago ematen dio beteranoen sailkapen orokorrean (40 urtetik gorakoetan) lehen hiru postuetan sailkatzeari, bere kategorian irabazteari baino. Adibidez, «Sant Llorenç Savall-en nire kategorian ez ezik, beteranoetan ere irabazi

nuen. Azken finean, gehiago motibatzen nau ni baino gazteagoi irabazteak. Meritu gehiago duela uste dut, baina oro har berdin dit, nire gozamenarako egiten baitut korrika».

Gozatu egiten du lasterka, baina, azken finean, gailurretan egiten diren maratoietan edo iraupen luzeko probetan hartzen du parte, hiruzpalau mila metroko desnibeleko ibilbideetan. Proba benetan gogorretan, zailtzarrik gabe. «Ongi pasatzen dut. Jakina, azkenerako sufrimendu handia da, baina helmugara iristen zozen heinean, ibilbidean pasatako txakalaldi guztiak ahazten zaizkizu, eta iristeko desiratzen zaude», nabarmendu du Saenzek. Era berean, lasterketan pilatutako sufrimendua

«eramangarria» dela adierazi du: «Entrenamenduei esker, sentipen deseroso horiek guztiak jada ezagutzen dituzu. Ez zoaz hiltorian ere! Jakin badakizu zer duzun aurrean eta zeri egin behar diozun aurre. Lasterketa luze hauetan, gainera, hasieran edo erdialdean izan ditzakezun makalaldiei buelta eman diezaikezu, jan eta edan ondoren».

Korrikalari zumaiarraren hurrengo erronka Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia izango da, maiatzaren 28an. «Denboraldi hasiera, behintzat, lasterketa horretara bideratu dut», onartu du honek. Izan ere, bere asmoa bost ordutik jaiste da. Iaz atarian geratu zen, bost ordu eta minutu bateko denborarekin, eta aurten arantza hori kendu nahi du gainetik. «Ez dut obsesionatu nahi, horrelako probetan baldintza askoren mende baitzaude: lur-eremua, eguraldia, arazo fisikorik ez izatea... Hala ere, ez dut gezurrik esango. Bost orduko zedarria gainditu nahiko nuke».

Aurtengoa Zegama-Aizkorri lehiatuko den laugarren aldia du. 2007an egin zuen debuta, 05:39:29ko denbora egin zuen; 2008an, berriz, ez zen horren fin ibili eta sei ordu baino gehiago behar izan zuen lasterketa amaitzeko; eta 2010an, 05:01:10ko bere marka hautsi zuen. «Edizio batetik bestera 38 minutu hobetzea ikaragarria izan zen, baina orain pauso bat haratago ematen saiatuko naiz».

Aizkorriko tontorra gaindituta ere ez du geratzeko asmorik. Baditu egin nahiko lituzkeen lasterketa pare bat buruan: «Orain arteko entrenamenduei eta lasterketei esker oinarri sendoa lortu dut, eta hori baliatuz, Madrilgo Mendi Maratoia egin nahi dut ekainean eta Zallako Garlaleiz proba, berriz, uztailean».

